



## PANTAILA TXIKIAN

Gaizka IZAGIRRE BROSA

# Autofikzioa: ahalduntzeko eta salatzekeo tresna

**H**orretarako bi (tira hiru, bi ahizpak direlako) izen aukeratu ditut: Mireia Coel (Londres, 1987) eta Vilapuig ahizpak (Bartzelona, Mireia, 1997 eta Joana, 1994). Bereziki interesatzen zaidalako, lehenengo, emakume horiek autofikzioa bozgorailu gisa nola erabili duten ikustea. Eta bigarrenik, emakumearen ahalduntze prozesu barruan, hizkuntza zinematografikoak eskaintzen dituen erremintak nola zukutu eta erabili dituzten aztertzea. Antzekotasun ugari dituzten telesailak eta sortzaileak dira eta ariketa polita iruditu zait alde-  
ratzea.

### Vilapuig ahizpak eta "Selftape"

FILMIN

Filminek ekoizturiko telesaila. 'Selftape'-a aktoreek beren burua grabatzeko modalitate bat da, urrutiko edo atzerriko castingetara aurkezteko, non gidoiko testu edo gidalerro bat jaso, antzeztu eta bideoan grabatzen duten. Horrek casting-zuzendariei aukera ematen die casting presentzial bat antolatzekeo beharrik gabe lehen hautaketa bat egiteko.

Joana eta Mireia Vilapuig ahizpek kontzeptu horri zentzu bikoitza eman diote telesail honetan; alde batetik, fikzio istorio bat sortu dutelako, baina erabateko ukitu autobiografikoa duena –alegia, be-

Autofikzioa zer den labur azaldu beharko banu, biografiaren eta fikzio hutsaren artean kokatutako istorioa edo narrazioa dela esango nuke. Kirmen Uribek umore apur batez aipatu izan du «egileak bere burua nobelaren barruan sartzen duenean, beste pertsonaia bat bezala, baina egia esan beharrean gezurra esaten duenean». Euskal literaturan Bernardo Atxagaren «Nevadako egunak» (2013) eta aipaturiko Kirmen Uriberen «Bilbao-New York-Bilbao» (2008) dira horren bi adibide. Telesailen munduan ugaritu egin dira azken urteotan autofikzio kontakizunak. Umorearen bidea aukeratzen dute askok eta telesail nahiko kaskarrak izaten dira batzuetan, baina kasu honetan, narratiba mota hau egileari gertatutako zerbait salatzekeo, aldarrikapenen bat egitekeo eta, batez ere, ahalduntzeko tresna gisa nola erabili den aztertuko dut.



ren bizitzaren selftape edo bideo-erretratu bat egin izan balute bezala-. Eta bestetik, nork bere burua grabatzearen kontzeptu horrekin eta meta-zinemarekin jolastuz, aktore baten ikuspuntutik zinemaren industriak eragiten dituen albotekaltek azaleratu nahi izan dituztelako. Zeri buruzkoa den azaldu aurretik, testuingurua apur bat kokatu nahi nuke. Nortzuk dira bi ahizpa hauek eta nondik datoz? "Polseres vermelles" 2011. urtean Albert Espinosak eta Pau Freixasek Katalunian sorturiko telesail arrakastatsu eta oso ezaguna izan zen. Pentsa noraino iritsi zen telesaila, ezen Steven Spielberg-ek berak moldaketa bat egiteko eskubideak erosi zituen "Red Band Society" telesaila ekoizteko –nahiko kaskarra, bide batez-.

Ospitale batean girotuta, protagonismoa kasu honetan ez dagokie medikuei, pazientei baizik; gaixotasun jakin bat duten 8-17 urte bitarteko gazteei, zehazki. Gazte protagonista horien artean Vilapuig ahizpak zeuden. Telesail hori zela eta, arrakasta eta ospea oso goiz ezagutu zuten bi aktoreek eta lorratz hori betiko geratu da beraien bizitzan. Hortik aurrera bakoitzak bere ibilbidea izan du.

"Selftape" urte batzuk geroago dago girotuta –alegia, gaur egun-: Mireia Bartzelonara itzuli da, Oslon aktore gisa telesail batean arrakasta izan ondoren, baina Joana ahizparen harrera hotza da oso. Une horretatik aurrera, sekretuak,

gezurrak eta iraganeko trau-  
mak azaleratuko dira, eta bi  
ahizpek beren bizitzako alder-  
di pertsonal asko birplanteatu  
beharko dituzte, hala nola, la-  
na, maitasuna, adiskidetasuna  
edo beren arteko harremana.

30 minutuko sei ataleko fik-  
zio pasarteak artxiboko irudiz  
lagunduta daude une oro; txi-  
kitan etxean grabaturiko bi-  
deoak, promozio bideoak, el-  
karrizketak, castingak eta,  
jakina, beren selftapeak. Ha-  
sieran, narratiboki arraro sa-  
marra iruditu zitzaidan bali-  
bide honek kontakizuna  
aberastu eta zama emozional  
handiz hornitzen duela uste  
dut. Sortzaile nagusiak ahiz-  
pak izan arren, zuzendari lane-  
tan Barbara Farre katalana ari-  
tu da. Erdiko ataletan, gai hau  
jorratzen duten ikus-entzu-  
nezkoetan sarritan ikusi ditu-

dan egoerak erakusten dituz-  
ten arren eta apur bat errep-  
ikakorra iruditu zaidan arren,  
amaiera oso askea, beharrez-  
koa, originala eta apurtzailea  
dela uste dut. Osotasunarekin  
geratuko naiz, beraz, eta zinez  
gomendatu nahi dizuet tele-  
sail hau ikustea.

Seriearen alderdirik garran-  
tzitsuena amaierarako utzi  
nahi dut, autofikzioa izanda  
ere, mezu oso sendoak zabal-  
tzen baititu. Lehenik, zuzen-  
nean hitz egiten du emakume  
izaeraz eta zinemagintzan  
hark duen rolaz; aktore gisa  
emakumeak bere gorputzare-  
kin duen harremana, emaku-  
mearen irudiaren erabilera,  
sexualizazioa, filmaketetan  
intimitate-koordinatzailea-  
ren beharra... Kritika zuzena  
ere bai, ikus-entzunezko in-  
dustriari eta hark sortzen di-

tuen jostailu hautsiei: nera-  
bezaroan arrakasta goizegi  
iristen denean eta horrek sor-  
ditzakeen ondorioak. Lan-  
prekaritateari buruz ere ba-  
dihardu, inkomunikazioaz,  
osasun mentalaz...



Gidoia introspektzio ariketa  
sakon bat egiteko baliatu du-  
te, estetika intimista batean  
oinarrituta. Isilunez, begira-  
daz, keinuz eta elkarrizketaz  
betetako eszenak eta sekuen-  
tziak nagusi dira, oso errealak  
sentitzen direnak. Aktore lan-  
bidearen B aldea erakusten  
duen telesail gordina dugu  
honako hau, oso zintzoa eta  
beharrezkoa. Ikuspegi feme-  
nino eta feminista batetik  
eraikita dagoena. Distantziak  
distantzia, jakina, baina “Sel-  
ftape” ikusten ari nintzela  
beherago aipatuko dudan Mi-  
chaela Coel-en “I May Destroy  
You” etorri zait burura.

Telesaila ikusi osterako,  
etxeko-lan gehiago ditut  
zuentzat. Martxoan, Donos-  
tiako Crossover jaialdian tele-  
saila aurkeztu zuten bi ahiz-  
pek. Proiektzioaren ostean  
izandako mahai-ingurua  
ikustea gomendatu nahi di-  
zuet, aberasgarria baita auto-  
fikzioaren mugak non koka-  
tzen diren hobeto ulertzeko:  
<https://www.youtube.com/watch?v=ukD8c8N3LT>

## Michaela Coel eta “I May Destroy You”

HBO MAX

Michaela Coel aktoreak berak  
jasan zuen sexu eraso batean  
oinarrituta, ia gogoratzen ez  
duen baina gertatu zaion bor-  
txaketa baten biktima izateak  
uzten duen traumari buruzko  
autofikzio paregabea irudi-  
tzen zait. Sexu harremanetan  
izan beharreko adostasunari  
eta harreman horien merkan-  
tilizazioari buruzko erradio-  
grafia aparta. Hain zuzen, kul-  
turaren esparruan, #MeToo  
mugimenduaren erreferen-  
teetako bat bihurtu da Coel.



Ghanar jatorriko emakume honek 28 urterekin idatzi eta antzestu zuen “Chewing Gum” telesail entzutetsua. Londresko areto txikietan sekulako arrakasta izandako bere antzezlan baten egokitzeapena da: “Chewing Gum Dreams”. Neurri batean, bere ibilbidea Phoebe Waller-Bridgerenarekin aldera daitekeen arren –gidoilari, zuzendari eta aktore lanak uztartzen dituelako betiere genero ikuspegiari indarra emanda–, Coel “Fleabag”-en sortzailea baino askoz politikoagoa dela uste dut. Sexu-adostasunari eta harremanen merkantilizazioari buruzko erradiografia aparta eraikitzea lortu du bere obra eta hitzaldietan, eta aipatzen ari naizen telesail berezi honetan ere hori bera egin du. Proiektuak eremu oso pertsonaletik eraikitzen dituen pertsona izanik, erraietatik lortzen zaizkion bizipenak helduleku gisa erabiltzen ditu, ikuspuntu errealista eta berri-tzailea osatzeko. 2018an, “Chewing Gum” telesailean gidoilari gisa lanean ari zela, adibidez, sexu abusuak jasan zituela salatu zuen aktoreak.

Edinburgoko jaialdian eskainitako hitzaldi batean, Coel-ek testuinguruan jarri zituen sexismoa eta ikus-entzunezkoen industriak berezkoa duen arrazakeria. Belarrondoko galanta eman zion autokonplazentzian murgildutako britainiar industriari, baita lankide ohi askori ere. Hori gutxi baltz, gaueko klub batean sexu erasoak jasan ondoren, bizitza aldatu, gertatutakoa onartzeko borrokan bere burua ahalduitzeko bidaia hasi eta hortik sortu zuen “I May Destroy You” telesaila. Bera trauma bat baino askoz gehiago dela erakutsi nahi duen kontakizun desberdin eta iraultzailea.



Zentra gaitzen, beraz, telesailean. Nabarmenezkoa da, lehenik, hasieratik erakusten duen ausardia ikaragarria. Askok polemikotzat edo asalda garritzat jo dute, ziurrenik gizartea ez dagoelako erabat prestatuta gai horiei buruz hitz egiteko. Harrigarria iruditut zait nola jorratu dituen beharrezkoak diren gai ugari, gizonen zein emakumeen aurkako sexu indarkeria islatzen duten azpitramak txertatuz, esaterako; trauma-osteko sin-

dromearen normalizazioa, gehiago entzuteko beharra duen belaunaldi baten gizarte isla leiala, arrazismoa, transFOBIA, homofobia, suizidioa, depresioa...

Lehen atala bakarrik ikusten baduzu, telesailek gau hori berrosatzea eta erasoak nork eta nola egin zuen edo benetan gertatu ote zen argitzea bilatzen duela pentsatuko duzu agian. Thriller ukituak izango dituela ere bai. Ahaztu premisa hori, mesedez. Kendu burutik.

Tramaren kontzeptua ez baita zuri-beltzen artean mugitzen, grisetan bazik. «Bizitza betiko hondatu zidan sexu erasoak» baino askoz gehiago oihukatzen ari delako telesailek; izan ere, ez da dramaren bakarrik zentratzen, protagonistaren umorean eta, batez ere, trauma osteko estresaren nahasmenduan baizik. Bizitzaz dihardu, baina bizi dugun errealitate berriaren betaurrekoetatik, sare sozialak eta sexua bazterrean utzi gabe. Telesailek, gainera, ez da abusu bakar batean zentratzen. Helburua ez da soilik errudunak seinalatzea, halakoak jasaten dituzten pertsonen sentimenduak ikusleari ulertarazten saiatzea baizik. Pertsonaiek nabardura ugari dituzte, bat ere ez da perfektua eta denek gauza kritikagarriak egiten dituzte, noski.

Umore ukituak izateak ere apur bat nahastu egiten gaitu hasieran, baita deseroso sentiarazi ere. Drama txertatzen den unean, zer gertatzen ari den oso ondo jakin gabe sartzen gara Coel-en mundu berezian. Batzuetan, umore makabro eta zorrotza du. Beste batzuetan bizitzaren aldeko aldarriak jaurtitzen ditu. Eta gu, ikusle gisa, deseroso sentiarazten gaitu. Izan ere, telesailek deserosoa da, baina zuzenean begiratzen digu begietara eta zerk gogaitzen gaituen galdetzen digu, zerbateraino babesten ditugun pertsonaien posizioak eta zer egingo genukeen guk une jakin horretan. Sexu hezkuntza ri buruzko klaseetan jarri beharko litzatekeela iruditzen zait. Deserosoa eta gogorra izan arren, beharrezkoa da bertan planteatzen zaizkigun gaiei heltzea eta gogoeta sakona egitea. Zergatik ez?